


ISEI - IVEI

Rs5. HEZKUNTZAREN ETA FORMAKUNTZAREN UZTE GOIZTIARRA





ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^ñ Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
Rs5.1 taula eta grafikoa: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.	7
Rs5.2 taula: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.	8
Rs5.3 taula eta grafikoa: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2011. urtea.	10
Rs5.4 taula: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.	11
Rs5.5 taula: Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Europar Batasunean. 2011. urtea.	13
Rs5.6 taula eta grafikoa: Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.	15



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



ESKOLA UZTEAREN EHUNEKOA IKASKETA MAILARIK ALTUENA DBHKO TITULUA (HNSN 2)¹ DUEN ETA ONDORENGO HEZKUNTZARIK EDO PRESTAKUNTZARIK² JASOTZEN EZ DUEN 18-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN ARTEAN.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarraren ehunekoak % 10 baino txikiagoa izan behar du.

Eskola uzte goiztiarraren tasa betidanik izan da oinarrizko kezka bat Europako hezkuntza-politiketan, prestakuntza ezagutzen oinarritutako hazkunde ekonomikoaren eredu bat lortzeko ezinbesteko elementua delako, eredu horrekin garapen jasagarria eta gizarte kohesioa bermatzen direlarik.

Europako Kontseiluak 2003an eskola uzte goiztiarraren tasa 2010. urterako % 10 baino txikiagoa izatea erreferentzia-puntutzat hartu zuen, europar hezkuntza eta prestakuntza sistemen aurrerapena kontrolatzeko. Helburua betetzeko zailtasuna kontuan izanik, helburua 2020rako berdin mantendu da.

Eskola uzte goiztiarraren murrizpena 2020. urterako neurtzeko, batzordeak xedatu zuen 18-24 urte bitarteko gazteei galdetu ziezaieten zein zen euren ikasketa edo prestakuntza mailarik altuena eta datu-bilketaren aurreko lau asteetan –Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA) Espainiaren kasuan eta European Labour Force Survey (ELFS) Europar Batasunaren kasuan– ea mota bateko edo besteko hezkuntzarik edo prestakuntzarik jaso zuten ala ez. Helburua, azken finean, adin tarte horretako gazteek euren prestakuntza –arautua (derrigorrezkoaren ondorengoa) edo hezkuntza sistemaz kanpoko beste edozein motatako prestakuntza– jarraitzea sustatzea da, eta , aldi berean, biztanleriaren parte bat ezagutzaren gizartetik at geratzea eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskua ekiditea.

Azken urteotan adierazle honek zenbait aldaketa izan ditu bere definizioan eta metodologian. Gaur egun EUROSTATEk erabiltzen duen metodologia erabiltzen da eta kontuan hartzen den datua 4 hiru hilekoetako ehunekoen batez bestekoa da. Adierazle honekin batera aurkezten diren segida guztiak EPA-2005 metodologiarekin birkalkulatu dira.

Adierazle honen bilakaerak europar herrialdeetan batez beste beheranzko joera duen arren, kontutan hartu behar da finkatutako helburua benetan handizalea zela, 2010eko datua % 14,1ekoa baitzen, urte hartan lortu nahi zen % 10etik oso urrun. Horregatik erabaki du batzordeak 2020rako lehengo helburua mantentzea, hots, 2020rako goi mailako Bigarren Hezkuntzako eskolatze-tasa % 90 baino handiagoa izatea, horretarako herrialde bakoitzean zenbait neurri hartu direlarik.

¹ Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz)

² Prestakuntzatzat edozein motako ikaskuntzari lotutako jarduera guztiak hartzen dira, arautuak eta ez-arautuak.



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



2011n Europako 27 herrialdeetatik hamaika herrialdek bakarrik bete dute finkatutako helburua. Oro har, datuek gorabeherak ia herrialde guztietan izaten dituzten arren, 2006-2011 aldiko bilakaera aztertzean, eskola uzte goiztiarraren ehunekoa herrialde guztietan, lautan izan ezik, jaitsi egin dela ikusten da. 2006-2011 aldian ehunekoaren beherakadarik handiena izan duen herrialdea Portugal (15,9 puntu) izan da, gero Luxenburgoko (7,8 puntu) eta Suedia eta Malta (6,4 puntu). Luxenburgok (% 6,2) eta Suediak (% 6,6) helburua gainditzea lortu duten arren, Malta (% 33,5) eta Portugal (% 23,2) oraindik oso urrun daude helburua betetzetik. Eskola uzte goiztiarra igo deneko lau herrialdeen artean, oso deigarria da Erresuma Batuen kasua, 2006ko % 11,3tik 2011ko % 15,0ra pasa baita.

Euskadin 2000-2011 aldian eskola uzte goiztiarraren ehunekoa % 14,7tik % 13,0ra jaitsi da. Hamarkada horretan zehar, zenbait gorabehera txiki izan badira ere, eskola uztearen batez besteko ehunekoa % 14,3koa izan da. Euskadi 2011n Europar Batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekotik 0,5 puntu beherago zegoen, eta 2020rako helburutik 3 puntu beherago.

Espainiako batez besteko orokorra 2011n % 26,5 izan da. 2008tik aurrera eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren jaitsiera geldia gertatzen bada ere, Europar Batasuneko 27 herrialdeetako ehunekorik altuenetan bigarrena da, Portugalen gainetik (% 23,2) eta Maltaren azpitik (% 33,5). Beraz, ahalegin handia egin behar da 2020rako % 10eko europar helburua betetzeko.

2006-2011 aldian, 17 autonomia erkidegoetan –gehi Ceuta eta Melilla hirietan– eskola uzte goiztiarraren ehunekoa jaitsi egin da, Gaztela eta Leon (3,5 puntu) eta Errioxan (3,1 puntu) izan ezik, erkidego horietan ehunekoa igo egin delako. Ehunekoa gehien jaitsi deneko erkidegoen artean Ceuta eta Melilla (14,8 puntu), Murtzia (8,0 puntu) eta Gaztela-Mantxa (7,0 puntu) daude.

2011. urtean 18-24 urte bitarteko biztanleen artean eskola uzte goiztiarraren ehunekorik txikiena Nafarroan (% 12,0) izan da, gero Euskadin (% 13,0) eta Madrilan (% 19,8). Eskola uztearen ehunekorik altuenak izan dituzten erkidegoak Andaluzia (% 32,5) eta Ceuta eta Melilla (% 32,2) izan dira.

Sexuaren aldagaiak ere oso datu argigarriak eskaintzen ditu. 2011. urtean ikasketak goizegi uzten dituzten gizonen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa izan da herrialde guztietan, Bulgariar izan ezik, herrialde horretan ikasketak uzten dituzten emakumezkoen ehunekoa gizonen ehunekoa baino 1,7 puntu handiagoa baita. Sexuaren aldetiko alderik handiena duten herrialdeen artean Malta (11,3 puntu), Portugal (10,1 puntu) eta Espainia (9,1 puntu) daude.

Euskadiren kasuan 2000-2009 aldian hezkuntza goiz uzten duten gizonen batez bestekoa ehunekoa emakumezkoena baino 9,2 puntu handiagoa izan da. Hala ere, 2010ean (1,4 puntu) eta 2011n (1,0 puntu) alde hori desagertzen joan da. Horren arrazoia honako hau da: 2000-2011 aldian eskola uzte goiztiarraren tasa emakumezkoen artean igo egin da, baina aldi berean gizonen artean tasa jaitsi egin da. Autonomia erkidegoetan 2011n sexuaren arabera aldea asko aldatzen da erkidego batetik bestera, Euskadiko 1,0 puntuetatik Gaztela-Mantxako 17,7 puntuetara. Ikasketak goiz uzten dituzten gizonen ehunekoa



Rs5

Eskola uzte goiztiarra

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



emakumezkoen ehunekoa baino handiagoa izan da kasu guztietan.

Kontuan izan behar da adierazle hau Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EPA) datuetatik sortzen dela, eta Euskadirako eta adin tarte horretarako (18-24 urte) inkestaren lagina txikia dela. Ondorioz, datuen aldakortasuna hein handi batean laginketa-errorearen eragina izan daiteke, zenbait grafikotan azaltzen den bezala.

EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea), Eurostaten metodologia bera erabiliz, adierazle honi buruzko datu propioak eskaintzen ditu, eta zenbait kasutan ez datoz bat Eurostatek eta INEk eskaintako datuekin. Eustatek, Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestaren bidez (BJA), datuak askoz laginketa handiago batean oinarritzen ditu, eta, beraz, laginketa errorea askoz txikiagoa da. Hartara, zentzuzkoa dirudi adierazle honetan datu horiek ere eskaintzea, baina atal berezi batean (13. orrialdetik aurrera).

Hala eta guztiz ere, autonomia erkidegoen arteko konparazioetarako eta Europar Batasuneko herrialdeekiko konparazioetarako INEren datuak erabili dira.




Rs5.1 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan³.

Urtea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,7	19,8	9,5	10,3
2001	14,7	20,1	9,0	11,1
2002	13,2	17,0	9,3	7,7
2003	15,8	20,3	10,9	9,4
2004	13,4	18,2	8,4	9,8
2005	14,5	18,7	9,9	8,8
2006	14,5	19,5	9,4	10,1
2007	14,3	18,5	10,0	8,5
2008	14,7	18,1	11,2	6,9
2009	16,0	20,9	11,2	9,7
2010	12,6	13,3	11,9	1,4
2011	13,0	13,5	12,5	1,0

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia (Biztanleria Aktiboaren Inkesta).

³ Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Rs5.2 taula:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
ESPAINIA	29,1	29,7	30,7	31,6	32,0	30,8	30,5	31,0	31,9	31,2	28,4	26,5
Andaluzia	35,5	35,3	36,8	38,2	39,2	37,9	38,1	37,3	38,5	37,5	34,7	32,5
Aragoi	21,9	20,8	27,0	24,0	23,5	23,0	26,0	26,0	25,6	25,1	23,7	22,7
Asturias	21,8	19,8	22,4	28,6	26,3	20,1	23,2	22,5	19,7	21,1	22,3	21,9
Balear Uharteak	42,0	40,7	40,3	41,4	42,5	39,3	36,5	43,1	43,2	40,8	36,7	30,7
Kanariak	34,1	36,9	33,0	32,7	33,5	30,5	34,5	36,3	34,1	31,3	30,4	31,5
Kantabria	22,8	24,2	26,2	29,1	26,3	21,8	23,6	25,3	22,8	23,9	23,9	21,2
Gaztela eta Leon	21,6	22,9	22,8	24,4	23,3	25,7	23,8	23,5	26,0	27,0	23,3	27,3
Gaztela-Mantxa	35,8	36,4	36,5	36,2	37,0	36,5	38,6	37,2	38,1	34,4	33,2	31,6
Katalunia	29,1	30,1	31,2	33,9	34,0	33,1	28,6	31,6	33,2	31,9	29,0	26,0
Valentziako Erk.	32,7	35,8	36,0	36,0	35,6	32,1	31,5	31,6	33,1	32,8	29,2	27,4
Extremadura	41,0	37,9	38,2	36,9	39,7	37,0	35,9	34,3	33,6	34,5	31,7	29,6
Galizia	29,2	27,5	26,9	25,0	24,3	23,0	24,9	23,9	24,1	26,0	23,1	20,8
Madril Erk.	19,6	20,8	23,7	22,6	25,4	26,0	26,0	25,8	26,9	26,3	22,3	19,8
Murtzia	39,2	37,7	38,7	42,0	42,8	39,4	38,7	39,6	41,0	37,3	35,5	30,7
Nafarroa	16,4	17,9	21,6	20,8	21,2	18,4	13,5	17,1	19,2	19,8	16,8	12,0
EUSKADI	14,7	14,7	13,2	15,8	13,4	14,5	14,5	14,3	14,7	16,0	12,6	13,0
Errioxa	26,1	27,0	27,3	34,7	35,0	29,0	27,1	30,3	37,2	32,7	28,1	30,2
Ceuta eta Melilla	37,5	32,2	36,1	40,8	41,3	44,4	47,0	49,2	42,1	36,0	40,7	32,2


Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikitatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.



Rs5.2 grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan. 2005. eta 2011. urteak.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienera ordenatua, "2011. urtea" irizpidearen arabera".

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.




Rs5.3 taula eta grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera autonomia erkidegoetan. 2011. urtea.

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
ESPAINIA	26,5	31,0	21,9	9,1
Andaluzia	32,5	37,2	27,5	9,7
Aragoi	22,7	27,6	17,9	9,7
Asturias	21,9	26,8	16,9	9,9
Balear Uharteak	30,7	34,1	27,1	7,0
Kanariak	31,5	34,7	28,2	6,5
Kantabria	21,2	26,9	15,0	11,9
Gaztela eta Leon	27,3	32,9	21,3	11,6
Gaztela-Mantxa	31,6	40,2	22,5	17,7
Katalunia	26,0	30,7	21,2	9,5
Valentziako Erk.	27,4	32,5	22,2	10,3
Extremadura	29,6	36,8	21,9	14,9
Galizia	20,8	25,5	15,8	9,7
Madril Erk.	19,8	22,3	17,3	5,0
Murtzia	30,7	33,3	27,8	5,5
Nafarroa	12,0	15,4	8,7	6,7
EUSKADI	13,0	13,5	12,5	1,0
Errioxa	30,2	35,3	25,4	9,9
Ceuta eta Melilla	32,2	34,4	30,1	4,3

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Datuak arretaz interpretatu behar dira, laginketa txikietatik ateratakoek laginketa-errore handia izan dezakete.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienara ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera".

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). EPA-2005 metodologia. Datuak 4 hiruhilabeteetako urteko batez bestekoa dira.




Rs5.4 taula:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EB (27 herrialde)	17,6 (e)	17,2 (e)	17,0	16,5 (b)	16,0	15,8	15,5	15,1	14,9	14,4	14,1	13,5
Belgika	13,8	13,8	14,1	14,3	13,1 (b)	12,9	12,6	12,1	12,0	11,1	11,9	12,3
Bulgaria	:	20,5	20,7	21,9	21,4	20,4	17,3	14,9	14,8	14,7	13,9	12,8
Txekiar Errepublika	:	:	5,7	6,5 (b)	6,3	6,2	5,1	5,2	5,6	5,4	4,9	4,9
Danimarka	11,7	9,2	9,0	10,4 (b)	8,8	8,7	9,1	12,9 (b)	12,5	11,3	11,0	9,6
Alemania	14,6	12,3	12,5	12,8 (i)	12,1	13,5 (b)	13,7	12,5	11,8	11,1	11,9	11,5
Estonia	15,1	14,4	13,2	12,9	13,1	13,4	13,5	14,4	14,0	13,9	11,6	10,9
Irlanda	:	:	14,6	13,1 (b)	13,1	12,5	12,1	11,6	11,3	11,6	11,4	10,6
Grezia	18,2	17,1	16,5	16,0 (b)	14,7	13,6	15,5	14,6	14,8	14,5	13,7	13,1
Espainia	29,1	29,7	30,7	31,6	32,0	30,8 (b)	30,5	31,0	31,9	31,2	28,4	26,5
Frantzia	13,3	13,5	13,4	12,4 (b)	12,1	12,2	12,4	12,6	11,5	12,2	12,6	12,0
Italia	25,1	25,9	24,2	23,0	22,3	22,0	20,6	19,7	19,7	19,2	18,8	18,2
Zipre	18,5	17,9	15,9	17,3 (b)	20,6	18,2 (b)	14,9	12,5	13,7	11,7	12,6	11,2
Letonia	:	:	16,9	18,0	14,7	14,4	14,8	15,1	15,5	13,9	13,3	11,8
Lituania	16,5	14,9 (b)	13,4 (b)	11,4	10,5 (b)	8,1	8,2	7,4	7,4	8,7	8,1	7,9
Luxenburgo	16,8	18,1	17,0	12,3 (b)	12,7	13,3	14,0	12,5	13,4	7,7 (b)	7,1 (u)	6,2 (u)
Hungaria	13,9	13,1	12,2	12,0 (b)	12,6	12,5	12,6	11,4	11,7	11,2	10,5	11,2
Malta	54,2	54,4	53,2	49,9	42,1 (b)	38,9	39,9	38,3	38,1	36,8	36,9	33,5
Herbehereak	15,4	15,1	15,3	14,3 (b)	14,1	13,5	12,6	11,7	11,4	10,9	10,0 (b)	9,1
Austria	10,2	10,2	9,5	9,0 (b)	9,5 (i)	9,1	9,8	10,7	10,1	8,7	8,3	8,3
Polonia	:	7,4	7,2	6,0	5,6 (b)	5,3	5,4	5,0	5,0	5,3	5,4	5,6
Portugal	43,6	44,2	45,0	41,2	39,4 (b)	38,8	39,1	36,9	35,4	31,2	28,7	23,2 (i)
Errumania	22,9	21,7	23,0	22,5	22,4 (b)	19,6	17,9	17,3	15,9	16,6	18,4	17,5
Eslovenia	:	6,4	5,1	4,6 (u)	4,3 (u)	4,9 (u)	5,6	4,1 (u)	5,1 (u)	5,3 (u)	5,0 (u)	4,2 (u)
Eslovakia	:	:	6,7	5,3 (b)	6,8	6,3	6,6	6,5	6,0	4,9	4,7	5,0
Finlandia	9,0 (b)	9,5	9,7	10,1 (b)	10,0	10,3	9,7	9,1	9,8	9,9	10,3 (i)	9,8
Suedia	7,3	10,2 (b)	10,0 (i)	9,2 (p)	9,2 (p)	10,8 (p)	13,0 (p)	12,2 (p)	12,2 (p)	10,7 (p)	9,7 (p)	6,6 (p)
Erresuma Batua	18,2	17,8	17,6	:	12,1	11,6	11,3	16,6 (b)	17,0	15,7	14,9	15,0
Euskadi*	14,7	14,7	13,2	15,8	13,4	14,5	14,5	14,3	14,7	16,0	12,6	13,0

(.) Datua falta da. (e) Balio zenbatetsia. (b) Segidaren haustura. (i) Kontzeptu eta definizio egokituak gauzatzearen ondorioz, aurreko urteekiko konparagarritasun urria dago. (p) Behin-behineko datua. (u) Konparagarritasun urriko datua.

*Euskadirako iturria: INE.




Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).



Rs5.4 grafikoa:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Europar Batasunean. 2006. eta 2011. urteak.



Eskola uztearen ehuneko txikienetik handienera ordenatua, "2011. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).

**Rs5****Eskola uzte goiztiarra**HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA**Rs5.5 taula:****Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Europar Batasunean. 2011. urtea.**

	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	13,5	15,3	11,6	3,7
Belgika	12,3	14,9	9,7	5,2
Bulgaria	12,8	12,0	13,7	-1,7
Txekiar Errepublika	4,9	5,4	4,4	1,0
Danimarka	9,6	12,1	7,0	5,1
Alemania	11,5	12,4	10,6	1,8
Estonia	10,9	13,1 (u)	8,6 (u)	4,5
Irlanda	10,6	12,5	8,7	3,8
Grezia	13,1	16,1	10,1	6,0
Espainia	26,5	31,0	21,9	9,1
Frantzia	12,0	13,9	10,2	3,7
Italia	18,2	21,0	15,2	5,8
Zipre	11,2	15,1	8,1	7,0
Letonia	11,8	15,9	7,7	8,2
Lituania	7,9	10,6	5,0 (u)	5,6
Luxenburgo	6,2 (u)	7,6 (u)	: (u)	:
Hungaria	11,2	12,1	10,3	1,8
Malta	33,5	38,9	27,6	11,3
Herbehereak	9,1	10,8	7,2	3,6
Austria	8,3	8,8	7,8	1,0
Polonia	5,6	7,4	3,8	3,6
Portugal	23,2 (i)	28,2 (i)	18,1 (i)	10,1
Errumania	17,5	18,5	16,6	1,9
Eslovenia	4,2 (u)	5,7 (u)	2,5 (u)	3,2
Eslovakia	5,0	5,4	4,6	0,8
Finlandia	9,8	11,2	8,4	2,8
Suedia	6,6 (p)	7,8 (p)	5,3 (p)	2,5
Erresuma Batua	15,0	16,2	13,8	2,4
Euskadi*	13,0	13,5	12,5	1,0

(:) Datua falta da. (i) Kontzeptu eta definizio egokituak gauzatzearen ondorioz, aurreko urteekiko konparagarritasun urria dago. (p) Behin-behineko datua. (u) Konparagarritasun urriko datua. *Euskadirako iturria: INE.


¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).



Rs5.5 taula:

Eskola uzte goiztiarraren ehunekoa sexuaren arabera Europar Batasunean. 2011. urtea.



Eskola uztearen ehuneko handienetik txikienera ordenatua, "Sexu biak" irizpidearen arabera. Estonia ez da ageri, daturik ez dagoelako.

Iturria: EUROSTAT. (LFS – Europar Batasuneko adierazle estrukturalak).

(EUSTAT) Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak, Eurostat metodologiarekin (BJA) Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestatik ateratakoak. Inkesta hiru hilabetez behin gauzatzen da Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta datuak hiruhilabeteetako datuetatik ateratako urteko batez bestekoa dira.




Rs5.6 taula eta grafikoa:

Ikasketak bukatu gabe utzi dituen 18-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera sexuaren arabera Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

Urtea	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2000	14,3	18,1	10,3	7,8
2001	12,4	15,9	8,7	7,2
2002	13,4	16,7	9,9	6,8
2003	14,7	19,3	9,9	9,4
2004	14,2	18,9	9,1	9,8
2005	11,5	13,8	9,0	4,8
2006	12,0	15,0	8,5	6,5
2007	12,4	15,2	9,3	5,9
2008	14,1	16,8	11,1	5,7
2009	12,6	16,6	8,5	8,1
2010	10,8	12,7	9,0	3,7
2011	9,0	8,7	9,3	-0,6
2012	7,7	8,3	7,1	1,2

¹Balio positiboek ikasketak goizegi uzten dituzten gizonezkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa dela adierazten dute.



Iturria: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). EUROSTAT metodologia, Biztanleriaren Jardueraren arabera Sailkatzeko inkestako datuak (BJA).